

Kirola

Biharko Izarrak Pilota Txapelketako finalak jokatuko dituzte gaur, 19:30ean, Mallabiko pilotalekuan >13



Durangotik abiatuko da, domekan, erabakitzeko eskubidea aldarrikatzea helburu duen giza katea >2-3

Erabakitzeko eskubidea eskuz esku aldarrikatuz

Kepa Aginako.

ALKIMAX

Alquilamos soluciones

Eitua industriagunea, 71C
48240 BERRIZ (Bizkaia)
946 824 550 • alkimax@alkimax.net
www.alkimax.net



ADAR-
BIRRINTZAILEA



ZULAGAILUA



ENBORRAK
ZATITZEKO
MAKINA



MOTOZERRA



GASOLINAZKO
MOTORDUN
AITZURRA

Mañaria > 6

Urkiolako parke naturalean ezingo da harrobi gehiago eraiki

Iurreta > 4

Emakumeen osasunean kirola egiteak duen garrantzia hartuko dute berbegai jardunaldietan

Durango > 8

Segurtasuna sustatzeko bizikleta irteera egingo dute bihar

Zaldibar > 6

Gari rock Fest jaialdia antolatu dute Zaldibarren, bigarren

Herririk herri

Eskurik esku, Durangaldean ere erabakitzekeo eskubidea aldarrikatuko dute giza katean, etzi

'Anboto'-k jarraipen berezia egingo dio 'www.anboto.org' webgunean

> DURANGALDEA J.Derteano Domekan, erabakitzekeo eskubidearen aldeko giza kateak Durango eta Iruñea lotuko ditu 123 kilometroan zehar; ibilbide horretako 18 kilometro Durangaldean izango dira: Durangon eta Atxondon bina, Abadiñon lau eta Elorrion hamar. Tarte horretako giza katea Durangaldeko hamahiru herrietako eta Bizkaiko beste hainbat herrietako jendearekin osatu da; Bermeoko herritarrekin, esaterako. Eskualdeko herrietan 5.719 lagunek eskuratu dute metroa kilometro horietan, baina horiei metroa eskualdetik kanpo eskuratu dutenak gehitu behar zaizkie.

Erabakitzekeo eskubidearen aldeko Gure Esku Dago dinamika herririk herri landu da urte eta erdian. Hiru zutarritan oinarritzen da: "Herria gara, erabakitzekeo eskubidea dugu, eta herritarron garaia da". Zutarri horietatik abiatuta, ahalik esparru ideologiko zabalenaren topagune bihurtu gura du. Bide horretan, domekako giza katea, helmuga baino, abiapuntua izango da.

Berriz izan zen Gure Esku Dago dinamika lantzen eskualdeko lehen herria. Ondoren, apurka-apurka, gainerako herriak gehitu zitzaizkion. Harrezkero, hamaika ekimen antolatu dituzte herririk herri giza kateari begira. Esaterako, Zornotzan -800 lagunekin- eta Elorrion -400 lagunekin- giza kate sinbolikoak egin zituzten. Abadiñon Ricard Vilaregut Asamblea Nacional Catalanako kidea Txanportan egindako mahai inguru bateko hizlarietako bat izan zen.

Giza katea eta ospakizuna Domekan, 12:00etan hasi, eta 12:30ean amaituko da giza katea. Aurretik, kilometro bakoitzean elkartzekeo guneak ipiniko dituzte, eta askotariko animazioa egongo da ekimenari jai giroa emateko. Esaterako, Berrizetik trikitilari, bertsolari eta abarrek jai giroa sortuko du Muntsarrazko bosgarren kilometroan. Hirugarren kilometroan, berriz, Iker Azkorbebeitiak txakurrekin eta antzarekin erakustaldia egingo du bertaratzen direnen

gozagarri. Gainera, kilometro bakoitzean informazio guneak egongo dira, eta egunean bertan metroa eskuratzeko aukera eskainiko dute.

Jaialdia Durangon

Giza katearen ostean, bost jaialdi izango dira, horietako bat Durangoko Landako Gunean, 13:30etik aurrera. Bertsolariak, eta Gozategi, Ze Esatek! eta Oxabiren kontzertuak prestatu dituzte, besteak beste. Jan-edanerako aukera ere egongo da: otartekoak zein herri bazkarietako gunea eskainiko dituzte. Gaztetxoenei begira Irrien Lagunen puzgarriak, tirolina, ohe elastikoak eta *slackline* abentura gunea egongo dira egun osoan.

'Anboto'-ren jarraipena

Anbotok domekako giza kateari jarraipena egingo dio webgunean: www.anboto.org. Tokikom elkarteko hedabide batzuekin -*Goiena*, esaterako-, eta *Berria* eta *Argia* hedabideekin elkarlanean arituko da giza katearen berri emateko.



Zornotzarrak Bizkargin, erabakitzekeo eskubidea aldarrikatzen.



Elorriarrek giza kate sinboliko bat irudikatu zuten plazan.



Otxandiarrek plazan, Gure Esku Dago dinamikagaz bat egiten.

SALDUTAKO METROAK

ABADIÑO - 550	IURRETA - 335	ZORNOTZA - 1.200
ATXONDO - 72	IZURTZA - 38	GUZTIRA - 5.719
BERRIZ - 275	MALLABIA - 110	* Eguenera arteko datuak
DURANGO - 1.800	MAÑARIA - 104	
ELORRIO - 795	OTXANDIO - 260	
GARAI - 25	ZALDIBAR - 155	

GOMENDIOAK

- Nor bere kilometrora denboraz heltzeko eskatu dute; ahal dela, 10:00etarako.
- Errepidea zati askotan ez da moztuta egongo. Kontuz autoekin eta autobusekin. Errespetatu segurtasun arauak.
- Kasu egin antolakuntzako arduradunei. Behar bezala identifikatuta egongo dira.
- Zaindu ingurua. Zaborrak bildu eta eraman.
- Autobusek lehenasuna izango dute heltzerakoan zein joaterakoan.
- Eraman ezazu Gure Esku Dago ekimenaren kamiseta jantzita.
- Edariak eraman.
- Eguraldi ona egiten badu, ez ahaztu, besteak beste, eguzkitarako babes, txanoa eta arropa egokia.

Laguntzaileak:

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutakoa


anboto komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta (Bizkaia)
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2014ko ekainaren 6a,
12. urtea - 548. alea

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia, Amaia Huarte Basabe, Itxaso Altuna Marina.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso Esteban Urriaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri eta Amaia Ugalde Begoña.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Jon Ander Urkiaga Egidazu.
Argazkilariak: Kepa Aginako, Zalao Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 11.500 ale




“Historia berri baten lehen orrialdeak idazten gabiltza”

Gorka Camara
BERRIZ
5. kilometroa ABADIÑO

Berrizen bi urte daroaguz erabakitze esku bidearen aldeko lanketa egiten, eta pozik gaude honen guztiaren inguruan sortu den mugimenduagaz. Nik sinesten dut historia berri baten lehen orrialdeak idazten gabiltzala.

Domekan, 09:30ean trena hartu, eta kalejiran joango gara Matienatik Muntsaratzera. Han, besteak beste, Amuriza aita-alabak eta Gorka Lazkano egongo dira bertotan. Giza katearen ostean, Durangora: disfrutatatu eta txanda egitera.



“Denbora luzeko lanaren ospakizun eguna izango da”

Iker Azkorbebeitia
ABADIÑO
3. kilometroa ABADIÑO

Abadiñon ilusio handiz dihardugu Gure Esku Dago dinamika lantzen. Gainerako herrietan lez, herritar askoren arteko elkarlanaren emaitza da Abadiñoko dinamika. Hori oso pozgarria da. Domekako giza katea denbora luzeko lanaren ospakizun eguna izango da.

Hirugarren kilometro giroa alaitzeko, esaterako, txakurrekin eta antzarekin erakustaldiak egingo ditugu. Ondoren, ea denok Durangon elkartzen garen jai giroan.



“Sentsibilitate askotako jendeak erakutsi du interesa”

Maite Ingunza
ZORNOTZA
4. kilometroa ABADIÑO

Otsailean egin genuen gure lehen ekitaldi publikoa, plazan irudikatutako esku erraldoi batez. Ondoren, herriko dendari, tabernari eta jende asko agertzen zen bideo bat egin genuen. Herritarren aldetik interesa ikustenez, kanpoko beste ekitaldi bat egitea pentsatu genuen: maiatzaren 18an 800 zornotzarrek giza kate sinboliko bat osatu zuten Zelaieta parkean. Egia esanda, pozik gaude, sentsibilitate askotako jendeak interesa erakutsi duelako, eta hori zen helburuetako bat.



“Giza katea osatzeko Ataunera joango gara”

Nagore Agote
ABADIÑO
70. kilometroa ATAUN

Mendi Martxak elkarrekin kilometro baten ardua dauka Ataundik Lizarrustira bidean, eta bertara joateko gonbita jaso genuen Hamabi Harri auzo elkartean. Izan ere, urtero Abadiñon antolatzen dugun Auzorik Auzo ibilaldian parte hartzen du elkarte horrek. 10:00 aldean helduko gara Ataunera. Non kokatuko garen jakin eta gero, bueltatxo bat egingo dugu, bertako lagun batek prestatu digun ibilbidea ezagutzeko. Hamarretakoa egin eta giza katean ipiniko gara.



a-metz

Gune paregabe guztiak dute aurrekontu bat, eta aurrekontu guztiak dute gune paregabe bat.

Ibaizabal, 3A - Durango - www.a-metz.com - 946 818 481



Goizane Azpiri Maurtua
Naturopata kolegiatua, 3.515 zk.

Eskuzko tekniketan eta psikofisikoetan aditua

Kontrakturen aurkako masajea
Drainatze linfatikoa
Osteopatia
Teknika kraneo-sakrala eta erraietako teknika
Estetika naturala: aurpegiko eta gorputzeko tratamenduak

Etxez etxeko zerbitzua (aurretiko hitzordua)

San Ignazio auzunea, 2 behea - Durango • Tel.: 675 706 599



Bulegorako zigiluak Fotolitoak

Betikoak flexografia

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

Langabezia tasa prekaritateaz baliatuta jaitsi dela dio LABek

> DURANGALDEA M. Onaindia Langabezia tasak beherakada eman du azken hilabeteetan, eta horren harira ikuspegi kritikoa azaldu du LAB sindikatuak. Egoerak hobera egin duela dioten iritziak ez ditu aintzat hartu: “Ez dugu sinistu, gure inguruan gertatzen ari denak ez digulako hori adierazten”. Durangaldean, iazko datuekin alderatuz gero, 27 langabetu gutxiago daudela aitortu dute LABetik, baina, euren ustez, prekaritateaz baliatuta egin du behera kopuruak. Besteak beste, praktika kontratuak, “zabor kontratuak” eta aldi baterakoak egon direla adierazi du sindikatuak.

Horretaz gainera, azken urteetako balantzea egin dute LABetik. 2007ko apirillean 2.242 langabetu zeudela diote, eta orain 6.758. Horregatik, azken hileko 27 pertsonak gorabehera, ez dute uste datu esanguratsua denik. “Gainerako 6.731 langabetuei eta haien familiei egoera hobera doala esaten ausartzea errespetu falta eta ikuspegi politiko krudela da”.

Lanbide ikastetxeko matrikulazio epea martxan dago

> DURANGALDEA M.O. Ekainaren 20ra arte eman ahal da izena Durangaldeko Lanbide Ikastetxean. Prestakuntza iraunkorreko lau programa eskainiko dituzte zentroan: sukaldaria eta zerbitzatzeari, arotzeria, iturgintza eta pintura.

16-18 adin tarteko gazteek ikasi dezakete bertan, bi ikasturtez. Lantokiko prestakuntzaz gainera, gai orokorreko buruzko lanak ere egingo dute. Eusko Jaurlaritzak eta Amankomunazgoak laguntzen dutenez, doakoa da ikasleentzat.

“Emakumeen jabekuntzarako oso garrantzitsua da kirola”

‘Emakumea, kirola eta osasuna’ izenburuagaz jardunaldiak antolatu dituzte

> IURRETA Amaia Ugalde “Gure osasunerako garrantzi handia daukan arren, gizonek baino denbora gutxiago hartzen dugu kirola egiteko”. Anderebide Elkarte Ana Mari Urkidiren berbak dira. Egitaraua prestatu dute, emakumea eta kirola ardatz hartuta: “Helburua

herritar guztiak, baina bereziki emakumeak, kirolaren garrantziaz jabetzea da”. Anderebidek, Alargunak elkarteak eta udaleko Ongizate Sailak antolatu dute egitaraua.

Ibarretxe kultur etxean erakusketa ipini dute 1975an atararako Bizkaiko emakume ki-

rolarien argazkiekin. Atzo izan zuten lehenengo berbaldia, elikadura eta kalitateari buruz. Ekainaren 10ean, 11:00etan, *Nutrizioa eta ariketa fisikoa* berbaldia emango dute Javier Serra eta Xanti Perez medikuek.

Ekainaren 11n, 19:00etan, mahai inguruan batuko dituzte

Durangaldeko hiru emakume kirolari. Eneritz Iturriaga, Gurutze Frades eta Iraia Garciagak *Emakumea, kirola eta berdintasuna* hitzaldia eskainiko dute.

Berbaldiez gainera, irteera bat ere egingo dute Markina-Xemeinera, ekainaren 9an.

Ekainaren 11n mahai ingurua izango dute Eneritz Iturriaga, Gurutze Frades eta Iraia Garciagak



Ainhoa Albizuri eta Ana Mari Urkidi, 'Emakumea eta kirola' erakusketako argazki baten aurrean.

Emakume helduak kirolera Pentsaurrekoan eman dituzte azalpenak Anderebideko Ana Mari Urkidik eta Ainhoa Albizuri zinegotziak. Kirolak emakumeen jabekuntzan garrantzi handia duela azaldu du Urkidik: “Autoestimua igo egiten da kirola eginda, eta, osasunerako ona izateaz gainera, hartu-emanak egiteko ere ona da”.

Emakume helduak kontzientziatzeko premia nabarmendu du Urkidik: “Gazteak ohituago daude eskolatik, eta gustua hartzen diote kirolari”. Kirolaren “onura fisiko eta psikikoak” nabarmendu dituzte, eta Iurretako biodantza eta gimnasia ikastaroen adibidea ipini dute: “Ikastaroak amaitu, eta gehiago guran geratzen dira”.

51 ikasle partaide agendaren diseinuaren lehiaketan

> BERRIZ Amaia Ugalde Eskolako agendaren azala eta kontrazalaren diseinu lehiaketan Leire Unamuno Zelaieta-

ren lanak irabazi du. DBHko 51 ikaslek parte hartu dute aurtun. Udaleko Euskara Sailak antolatu du lehiaketa, eta hiru sari banatu ditu. Leire Unamunok Berrizko dendetan gastatzeko 150 euroko bonua irabazi du. Bigarren saria Jim Chang Zeng Zhangek irabazi du, 100 euroko bonua; hirugarrenak, Jon Egia Gaztelurrutiak, 50 eurokoa.



Egia, Unamuno eta Chang, euren sariekin.

Nekazari-artisten azoka eta abere erakusketa

> MALLABIA Jone Guenetxea Kultur hamabostaldiaren barruan, mendi lasterketa herrikoia prestatu dute umeentzat eta helduentzat bihar goizerako. Ondoren, bazkaritarako batuko dira. Arratsaldean, Tabernen arteko I. Pintxo Txapelketa eta *Morritson eta Gartzia* antzerkia izango dituzte.

Domekarako, nekazari-artisten azoka eta abereen erakusketa antolatu dituzte: ortuariak ereiteko tailerra eskainiko dute umei zuzenduta. Eguerdian, Orioko zortzi neskak desafioa jokatuko dute Mallabiko zortzi mutilen kontra.

San Joan jaietako afarian izena emateko aukera dago udaletxean

> GARAI Markel Onaindia Trumoitte kultur elkarteak hasi dira aurtengo San Joan jaiak antolatzen, eta iragarri dute urteroko afaria ekainaren 21ean izango dela. Gaueko 21:30ean izango da, Momoitioko San Joan ermitaren bueltan. Azaldu dutenez, dagoeneko badago afarirako izena emateko aukera, eta hilaren 16a izango da azken eguna horretarako. Interesdunek udaletxean eman behar dute izena, 15 euroren truke. Umeek, osteratzen, 12 euro ordaindu beharko dute.

MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER

Eraikuntzarako materiala
MACOBER
Zeramika eta gresa

Eitua Industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

hitz
liburudenda

artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

Aste honetan Hitzek gomendatzen dizu:

HELDUENTZAT	UME ETA GAZTEENTZAT	MUSIKA
BALEAK IKUSI DITUT Javier de Isusi	IDAZLEA ZEU ZARA, IRAKURTZEN DUZULAKO Joseba Sarrionandia	BONBERENEA SESSION Gose



piperrak

Eusko Labela duen Gernikako piperra barietate autoktonoa da; Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan klima atlantikoa duten eremuetan lantzen da; eta bilketa maiatzaren eta urriaren bitartean izaten da. Honako ezaugarri hauek ditu: luzera txikia, pedunkulu estu eta luzea, eta kolore berdea. Okela fina eta pergamino gabeko azala dira bere ezaugarri garrantzitsuenak, hau da, azala ez da ahoan nabaritzen.

Soilik benetako Gernikako piperrak du Eusko Labela.

Honela ezagutzen da

Eusko Label bereizgarria duten benetako Gernikako piperrak dozena biko erretiluetan merkaturatzen dira. Erretilu horiek zenbakidun etiketa bat daramate euren kontrolerako, eta bertan Eusko Label bereizgarria ageri da.

Gernikako piperrak Eusko Label bereizgarria izateaz gainera, Babes-tutako Seinale Geografikoa (BSG) ere badu, hau da, jatorri geografikoari loturiko bereizgarriak dituen kalitatezko produktua da.



tomateak

Euskadin bertako baserrietan ekoiztutako tomate honek betidaniko tomatearen usaina, kolorea eta zaporea ditu.

Tomate onenen artean hautatua eta ingurumena zainduta hazitakoa da.

Eusko Labela duen tomateak produktuen araudian zehazten diren freskura eta kalitate ezaugarriak bete behar ditu, eta baita zehaztutako ezaugarri morfologikoak eta organoleptikoak ere. Maiatz eta azaro bitartean batzen da, eta itxura ildotua eta

kolore gorri-berdekoa da. Araudian zehazten den gutxieneko azukre kontzentrazioak tomate honen berezko zapore bizia ziurtatzen du.

Honela ezagutzen da

Eusko Labela duen tomateak bi formatutan merkaturatzen da: zelulosazko erretiluetan zenbakidun kontrol-etiketarekin, edo aleka; kasu horretan tomate bakoitzak kontrol etiketa txiki bat darama, guztiak Eusko Label Kalitatea ezaugarriarekin.

Egin zaitez 'Anboto'-ren lagun!

Anboto astekariaren aldeko konpromisoa adierazten dute ehunka irakurlek urtero *Anbotoren lagun* eginda. Astekaria, barikuetan, Durangaldeko postontzietan doan banatzen den arren, badago babes ekonomikoa emateko aukera ere, urtean 20 euro ordainduta. *Anboto* 2002an sortu zen, Durangaldeko euskara elkarten ekimenez. Doan banatuko zela jakitun, bazeuden babes ekonomikoa emateko prest agertu ziren hainbat euskaltzale, eta *Anbotoren lagun* figura sortu zuten. Zailtasun ekonomikoei aurre egiteko diru iturri garrantzitsua da *Anbotorentzat*.

Lagun-talde horri eskerrak emateko sasoi delira iritzita, kanpaina berria abiatu dugu. Lehendik lagun direnek zuzenean Eusko Label produktuen otzara baten zozketan parte hartuko dute. Gainerakoek, *Anbotoren lagun* egiteko aukera dute. *Anboto@anboto.org* helbidera idatzi, 946 816 558 telefono zenbakira deitu edo orrialde honen behealdean dagoen kupoia bete, eta Bixente Kapanagako 9ra (Iurreta) bidaltzeko aukera duzu; *Anbotori* babes emateaz batera, otzararen zozketan parte hartzeko aukera izango duzu.

Urtean 20 euroko diru-laguntza emateko prest nago!
Lagun egiteko 3 aukera dituzu

<p>anboto@anboto.org</p>	<p>946 816 558</p>	<p>Izen-deiturak</p> <input type="text"/>
		<input type="text"/> <p>Helbidea / Herria</p>
		<input type="text"/> <p>Posta kodea</p>
		<input type="text"/> <p>Telefonoa</p>
		<p>Anboto komunikabideak - DHK Bixente Kapanaga, 9 · 48215 IURRETA</p>



Anbotoren lagun
artean Eusko Label
produktuen otzara bat
zozkatuko dugu

anboto
Lagunak



anboto

Urkiolako parke naturalean ezingo da harrobi berririk zabaldu

Jaurlaritzak dioenez, helburua parke naturaleko baliabide naturalak babestea da



Zalloventa harrobia 2010ean itxi zuten Jaurlaritzaren aginduz.

> MAÑARIA Jone Guenetxea
Jaurlaritzako gobernu kontseiluak Urkiolako parke naturaleko baliabide naturalak antolatzeko plana aldatu du dekretu bidez. Ana Oregi Ingurumen eta Lurralde Politikarako sailburuak azaldu duenez, “bost harrobik dute jarduera motaren bat parkearen edo babes eremu periferikoaren barneko berreskuratze lanak kontuan hartuta: Markomin Goikoa, Mutxate eta Zalloventa parke naturaletik kanpo daude, baina parkearen babes eremu perife-

rikoaren barne. Beste biak Atxa Txiki eta Atxarte dira, parke naturalaren izendapena egin zen unean jardunean zeudenak, baina egun abandonatuta daudenak”. Behin aldaketa eginda, “debebatuta dago meategiak eta gainerako baliabide geologikoak ustiatzea sekzio guztietan”. Gainera, dekretuak jasotzen duenez, ezingo da meategi eta baliabide horiek ustiatzeko eta ikertzeko baimenik edo kontzesiorik eman.

Markomin Goikoa eta Mutxate harrobien inguruan dekretuak dioenez, “jarduneko ustiapen proiektuen barneko baliabideak agortu ondoren, ez dute baimen berririk jasoko, ez parke naturalaren barnean, ezta bere babes eremu periferikoan ere”. Ustiatzeko baimenik ez duten harrobien inguruan, Atxa

Txiki, Atxarte eta Zalloventa “berreskuratze egin behar dira, eta horretarako proiektuen helburu bakarra eremua kontserbatzea izango da”. Azaldu dutenez, ekimenaren helburua Urkiolako parke naturalaren balio naturalak babestea da, eta horiekin baliokideak diren zenbait jarduera ekonomikori eustea. Jaurlaritzak azaldu duenez, Aramaio, Abadiño, Atxondo, Dima, Durango, Igorre, Izurtza, Lemoa, Mañari eta Zornotzako udalak eragingo dieten lurralde antolamendu tresnetara egokitu beharko dira.

EH Bilduk prentsa oharrean adierazi duenez, “poztasunez” hartu du Urkiolako parke naturalaren “blindajea”. Hala ere, diotenez, “ingurumeari egiten zaion mehatxua etengabea da Durangaldean”.

Fuchosa eta Cemoso inguruko urbanizazioa aurten hasi gura dute

Proiektua aurrekontuetan jaso dute, gobernu taldearen aldeko botoekin onartuta

> ATXONDO Joseba Derteano
Asteleheneko udalbatzarrean 2014ko aurrekontuak onartu zituzten gobernu taldearen (Bildu) aldeko botoekin; EAJK kontra bozkatu zuen, besteak beste, ez zuelako turismoa eta enplegua sustatzeko proiekturik ikusten. Iaz espero baino diru sarrera gehiago izan zituztela, eta, horren ondorioz, udaleko kontuak “hobetzen” dabiltzala azaldu zuen Rosa Elizburu alkateak. Aurten 2.820.871 euroan pareka-

tu dituzte gastuak eta sarrerak. Bestetik, Elizburuk adierazi du, tramite guztiak gauzatzen badira, aurten hasi gura dutela Fuchosa eta Cemoso inguruko urbanizazio lanekin. 1.146.303 euro inbertitu beharko dira, eta gastua enpresa biek eta partikular gutxi batzuek ordainduko badute ere, udalak gauzatuko du proiektua. Lan horiek aprobetxatuta, enpresa bietarako sarreran, biribilgune bat egiteko asmoa negoziatzen dabilta Aldundiagaz.

Bestalde, arrandegia dagoen eraikinaren atzeko landan kooperatiba bidezko zortzi etxebizitzak egiteko asmoa ez da aurrera irten azkenean. Ondorioz, ideia berri bat abiatu dute. Hainbat fasetan udala egingo da etxebizitzak eraikitzeko gastuen kargu. Etxebizitza sozialak izango dira: babes ofizialekoak eta alokairu sozialekoak. Aurten 65.000 euroko saila bideratu dute eta, batez ere, eraikinaren oinarriak finantzatzeko erabiliko dute.

Sakabanaketaren kontrako banderola eskegiko dute

Eskaera egin duten herritarrei baimena eman diete banderola eurek erosi, eta udaleko balkoian jartzeko

> ATXONDO J.D.
Udalak euskal presoen sakabanaketaren kontrako banderola eskegita izan du udaletxeko balkoitik. Baina sententzia bati kasu eginda, joan zen astean

kendu egin behar izan zuten. Epaiak dio ez dagokiola udalari banderola erosteko gastua egitea, eta berori balkoian ipintzeko baliabideak jartzea. Arrazoibide horietatik abiatuta, hamazazpi

herritarrek eskaera egin zuten udaletxean; banderola erosi, eta balkoian ipintzeko prest zeudela adierazi zuten. Atzoko udalbatzarrean bozkatu zuten eskaera, eta onartu egin zen Bilduren aldeko botoekin. EAJK kontra bozkatu zuen. EAJren ustez, “batzuek gurako dute, baina beste batzuek ez, eta udala denonda”. Ondorio judizialik izan dezakeen galdetuta, Elizburu alkateak adierazi zuenez, udalaren abokatuagaz kontsultatu dute, “eta egin daitekeela dio”.

II. Gari Rock Fest jaialdia: rockzaleentzako hitzordua

Ekainaren 12an izango da jaialdiko lehenengo zita

> ZALDIBAR Itsaso Esteban
Herriko eta inguruko musika-zaleen eta rockzaleen elkargune izango da Zaldibar ekainaren 12tik 14ra. Bigarren urtez antolatu du jaialdi hori Gari Rock Zaldibarko elkarteak. Egueanean, Talka tabernan izango diren kontzertuekin abiatuko dute jaialdia: Dr. San Martin's eta Tarrockan taldeek joko dute, 21:00etatik aurrera, bertan.

Gaztetxean izango dira, aldiz, ekainaren 13ko eta 14ko hitzorduak. Hiru rock talde gonbidatu dituzte jaialdira. Dead Bronco joko du barikuan, eta Niña Coyote eta Chico Tornado bikotea zein Porco Bravo taldea ariko dira zapatuan. Zapatuko bazkari osterako, Despeluque talde kolonbiarraren musika izango da 17:00etan, dantzarako gogoz daudenentzat aukeran.



Ekainaren 13an joko dute Dead Bronco taldekoek, gaztetxean.

katerin ardoak
iñaki uribe

saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delikatessena - Ardoteka

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

urtiaga

Proiektu eta Erreformak, S.L.
Gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZI, BEROGAILU, AZULEJU, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOI ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

Solaguren kalea, 3 - Tel.: 946 814 474 - Faxa: 946 215 374
E-maila: urtiaga@urtiaga.info - MATIENA-ABADIÑO

BODEGUILLA

TRAÑA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

ZERGATIK UKO EGIN CITROËN ESPERIENTZIARI?

ZURE IBILGAILUA AZTERTZEKO 12 ARRAZOI DITUZU

MARKA GUZTIETARAKO BALIOZKOA

**ETA DEN-DENA DOHAINIK.**

DOAKO AZTERKETA OINARRIZKO 12 SEGURTASUN OSAGAIETAN:

EGOERA:

1. PNEUMATIKOAK
2. IHES-HODIAN ETA FINKAPENETAN
3. HAIZETAKO-GARBIGAILUAK
4. TRANSMISIO HAUSPOA
5. DIREKZIO-HAUSPOA

LIKIDO MAILEN EGIAZTAPENA:

6. DIREKZIOA
7. BALAZTAK EDO LHM EDO LDS
8. HOZGARRIA
9. MOTORRAREN OLIO-MAILA

ESTANKOTASUNA:

10. MOTELGAILUA
11. MOTORRA
12. ABIADURA-KAXA

GAINERA,

%30 EKO
DESKONTUA

BALAZTA-PASTILLAK,
BALAZTA-DISKOAK,
MOTELGAILUAK ETA
HAIZETAKO-GARBIGAILUAK.



Deskontua ordezeko piezetarako baino ez da
(eskulana ez dago barne).

**BATERIAREN DIAGNOSTIKOA
DOHAINIK:**

BATERIAREN EGOERAREN EGIAZTAPENA,
KARGA ETA ABIO-MOTORRA.

CITROËN 60 AH (ref.: 5600TJ)	CITROËN 75 AH (ref.: 5600TC)	EUROREPAR 60 AH (ref.: 1609232680)	EUROREPAR 70 AH (ref.: 1609232380)
84,50€	111,00€	72,80€	95,50€

Bateriaren salneurria, BEZA barne. Beste CITROËN edo EUROREPAR baterietan
%30eko deskontua ezarriko zaie salneurri ofizialei (eskulana ez dago barne).

%10 EKO DESKONTUAREKIN ESKULANEAN

2014/04/10tik 2014/06/30ra

CRÉATIVE TECHNOLOGIE

**TABIRA AUTOMOCIÓN, S.A. CITROËN ETXEKO ZERBITZU OFIZIALA**Padureta 1 industrialdea - 48215 IURRETA tel.: 946 811 108 tabira@tabira.redcitroen.com <http://redoficial.citroen.es/iurreta>



Segurtasuna sustatzeko bizikleta irteera bat egingo dute bihar

Kanpainaren bidez, joan-etorrietan segurtasuna sustatu gura du Stop Accidentes elkarteak

> **DURANGO** Markel Onaindia Stop Accidentes elkarteak mugikortasun seguruaren aldeko kanpaina bat ipini du martxan udalaren laguntzagaz. Durango-ko joan-etorrietan segurtasuna sustatu gura dute, eta hurrengo ekintza bihar izango da. Bizikleta irteera bat egingo dute Durango-ko bidegorritik.

Duranguesa txirrindulari taldeak dinamizatuko du bihar-ko martxa. Goizeko 11:00etan elkartuko dira, Ezkurdin, eta, lehenengo, trafikoagaz lotutako arauak eta seinaleak zeintzuk diren gogoratuko dituzte. Ho-

rren ostean hasiko dira pedal-kadak ematen, Ezkurdin hasi, eta leku berean amaitzeko. Durangori buelta emango diote bidegorria erabilia, Askatasun etorbideetik, Landakotik eta Tabiratik pasatuta, besteak beste. Antolatzaileek azaldu dute adin guztietako lagunentzat egokia dela ibilbidea, baina umeek nagusiez lagunduta joan behariko dutela. Gainera, jolaserako aukera ere eskainiko dute, jinkana bat ere prestatuko dutelako.

Stop Accidentesen kanpaina ekainaren 25ean amaituko da, berbaldi batez.

Hizkuntza zapalkuntzaz ariko dira Plateruenean

'Euskararen kate hautsiak' aurkeztuko dute 12an

> **DURANGO** M.O.

Euskal Memoria fundazioak *Euskararen kate hautsiak* liburu landu du, eta horren aurkezpena egingo dute datorren egunean, 19:00etan, Plateruena Kafe Antzokian. Bertan izango da egilea, Dabid Anaut, eta Xabier Amurizak ere parte hartuko du. Guka-k, Durango-ko euskalgintzako bilguneak, sustatu du ekitaldia.

Euskarak jasandako zapalkuntzak dira liburuaren ardatz, eta horiek izango dituzte berbagai, besteak beste. Baina euskararen aldeko jardunean urteetan ibilitako mugimendua ere bada liburuaren osagaia. Ideia horietatik dator, gainera,

izena ere, Anautek dioenez. "Zapalkuntzak euskararen katea, transmisioa haustea lortu du une batzuetan. Baina euskalgintzak euskara loturik zeukaten kateak haustea ere lortu du".

Liburuan makina bat artikululu, kronologia eta elkarrizketa bildu ditu Anautek, eta horren argibideak ere emango dituela esan du.

Bertan izango da egilea, Dabid Anaut, eta Xabier Amurizak ere parte hartuko du

Musika, pailazoak, dantzak eta bertso baserri bira Mekoletako jaietan

> **OTXANDIO** J.D.

Gaur hasi eta eguaztenera arte Mekoletako jaiak ospatuko dituzte, Arkotxe kultur elkarteak antolatuta. Gaur, 23:00etan, Espaloian eta Ghetto taldeen kontzertuak izango dira, eta, ondoren, DJ Pelayoren musikak girotuko ditu jaiak.

Bihar, 17:30ean, Urduri dantza taldeak dantza saioa eskainiko du. Ondoren, 18:30ean, gaztetxoek Puski eta Txurruki pailazoen abenturekin gozatu ahalko dute. Orduetik aurrera musika izango da nagusi: 19:30ean, erabakitzeko eskubidearen aldeko Gure Esku Dago kantaldia izango da, eta, 23:30ean, Mekoletako VIII. Bertso Baserri Bira hasiko dute, Arantzarte dantza taldearen laguntzagaz. Eguazten goizean meza eta luntxa daude, eta, 17:00etan, mus eta briska txapelketak egongo dira.

SEI HANKAKO MAHAIA

IDOIA AGORRIA

PSE-EE



Aurpegi berriak garai berrietarako

Almudena Grandesek oso artikululu egokia idatzi du aste honetan, nire uste apalean. Dioenez, sozialistek DNAn dute grabatuta berpizteko gaitasuna, baina, hala ere, hori ez da haien generik berezkoena. Barneko zatiketarik garrantzi handiagoa baitu historikoki.

Bat nator berarekin. Aurreantztan ihes egiten dugunean, akats bera behin eta berriz errepikatzen dugunean, arazoa aurretiaz aztertu gabe erabakiak hartzen ditugunean, eta norberak duen harrokeria lan-molde gisa lantzen dugunean, okerrera egiten ari gara. Gero eta okerrago.

Bestetik, aurrekaririk izan ez duen hauteskundeetako porrotaren ondoren, Eduardo Madinak zuzen interpretatu zituen emaitzak. Argi onartu zuen alderdi sozialistak afiliatuen konfiantza galdu zuela, aparatu itxiak afiliatuak urrunditu zituen heinean. Begien bistakoa dena adierazi zuen. Eta militante bakoitzaren botoa hartu behar dela aintzat, antolakuntza demokratikoaren erakusgarri gisa.

Emaitza txarrak izan eta biltzarrerako deia egin ondoren, batzuek botereari eusten diote, Europako hauteskundeetan izandako porrotak haiekin zirikusirik izango ez balu bezala. Haiek bilatu dute irtenbide hori, ez militanteek. Beharbada, militanteen borondatea bat etorriko da horrekin; beharbada, ez. Baina, mesedez, joka dezagun demokraziaz, eta berriro dezagun alderdia.

Pentsatzen dut agintari horietako bat ere ez dela kaletik ibiltzen, eta batek ere ez duela jendearekin hitz egiten; bestela, ulertezina baita.

Podemos-Ahal dugu alderdiak izan duen arrakasta ikusita, alderdi sozialistan berrikuntza behar dugu, zalantzarik gabe; aurpegi berriak behar ditugu garai berrietarako.

Aitor Ipiñazarrek irabazi du jaietako kartel lehiaketa

Txupinazoaren unea irudikatu du Ipiñazarrek

> **ZORNOTZA** Joseba Derteano Aitor Ipiñazar 24 urteko zornotzarrak irabazi du Karmengo jaietako kartel lehiaketa. Kartelak jaiari hasiera ematen dien txupinazo ekitaldia islatzen du. Goian, balkoian txupinazoa jaurtikiko duena ageri da, eta, behean, egun horretan bertaratzen diren herritarrak.

Koloreari dagokionez, "urdina nabarmentzen saiatu naiz, bai zapietan, eta bai kartelaren tonalitate orokorrean", dio Ipiñazarrek. "Urdina da Zornotzako jaietan nabarmentzen den kolorea". Azkenik, atzealdean herriko hainbat eraikin bereizgarri ikusten dira: Nafarroa zentroa, eta Zelaieta zentroa, esaterako".



Aitor Ipiñazar, kartel lehiaketako irabazlea.

m o m o t x
t a b e r n a



Plateruen plaza, 12
48200 Durango
Tel.: **946 811 006**

Grupo **CATALANA OCCIDENTE**

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Agirre Lehendakari kalea, 8 - 48200 Durango
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577
posta elektronikoa: jrueda@segurosbilbao.com

Uztaileko lehen asterako zabaldu gura dituzte Elizaldeko igerilekuak

Ana Otadui alkateak ilusioa agertu du Elizaldeko igerilekuen obrak azaltzeko egindako bisitan



Aitor Agirre kirol arloko zinegotzia, Otadui eta Mujika obratan.

> ELORRIO Markel Onaindia “Obrak martxa onean doaz”. Ana Otadui alkateak (EAJ) berba horiek erabili zituen martitzenean, Elizaldeko igerilekuen obratan, komunikabideentzat eginiko bisitan. Uztaileko lehen asterako zabaldu nahi ditu udalak, eta horretarako ekinean dabilta beharginak. Otadui azaldu du 1.000 lagunentzako lekua egongo dela. Ilusio handia agertu du: “Udaz gozatzeko aukera aproposa izango da, herritik irten barik”. Hiru igerilekuak ia prest daude, eta ingurua egokitzeta falta da: belarra, baldosak, aldagelak eta taberna, adibidez.

Obraren aurrekontua 1,2 milioi eurokoa izan da. Joan zen astean, aurreikusitako obra batzuetarako 243.000 euro erabiltzea onartu zuten. Adibidez, belarra era naturalean haztea

pentsatuta zegoen, baina orain belarra ekartzea erabaki dute, futbol estadioetan lez. Joseba Mujika alkateordearen arabera, “askoz hobe delako”.

Prezio publikoak lantzen hasi dira, eta udalbatzarrean onartu behar dira. Mujikaren esanetan, gazteak eta nagusiak kontuan eduki dituzte, eta inguruko igerilekuetako tarifak erreferentzi lez hartu dituzte. Esaterako, abonua familiar orokorra 100 eurokoa litzateke, familia ugariena 90 eta banakakoa 65. Kiroldegiko abonatuak 20 euro inguruko deskontua edukiko dute. Eguneko sarrera sei euroan egongo litzateke; gazteena eta jubilatuena lau. Bildu abstenitu egin da: “Ez dugu ezer jakin gura proiektuaz, ez digutelako inoiz kasurik egin”. Igerilekuak mantentzeko arazoak egongo direla uste du.

Karabanen aparkalekua ipiniko du udalak 2015ean

Autokarabanen aparkalekuagaz Europako autokarabanazaleak erakarri gura ditu udalak

> ELORRIO M.O.

San Jose kalean ezarriko duen autokarabanen aparkalekuagaz turismoa indartu gura du udalak. Batez ere, Europako autokarabanazaleak erakarri nahi ditu, eta hamaika ibilgailu sartzeko lekua egokituko du. Ur zikinak botatzeko, eta ur garbia eta argindarra hartzeko aukera edukiko dute turistek. Gaua ere pasa ahaliko dute bertan; hori bai, ezingo dute bertan kanpantu. Udalak 2015ean egin gura du

obra, eta horretarako 241.465 euro inbertitzea aurreikusi du.

Udalaren arabera, proiektuak hobekuntzak ekarriko ditu San Jose ingurunean. Espaloia egingo dute bertaraino, irisgarritasuna hobetzeko; kontainerak aparkaleku ondora eroango dituzte, eta 170 metro koadroko jolasgune bat eraikiko dute.

Proiektua egitea 2013an onartu zuen udalak aho batez, Bilduren partaidetza prozesu batean ideia sortu eta gero.

760 euro batu dituzte dantza maratoi solidarioan

> ABADIÑO I. Esteban

Bizkaiko Elikagai Bankuari emango diote, zapatuan, Traña-Matienan egin zuten dantza maratoi solidarioan batutako dirua. Antolatzaileen berbetan, “parte-hartze handia izan duelako, oso arrakastatsua” izan da ekimena.

Abadiñoko herritar talde batek antolatu zuen zapatuko dantza latinoen maratoi solidario hori, eta 760 euro batu zituzten ekimenean parte hartzera joandako herritarrei esker. Egoera ekonomiko zaila bizi duten herriko familien artean banatuko du Elikagai Bankuak Abadiñon batutakoa.

Mendabiara eta Vianara irteera antolatu dute ekainaren 21erako

> IZURTZA J. Derteano

Erdoitza jubilatuen elkarteak eta Izurtzako Udalak Nafarroako Mendabia eta Viana herriak ezagutzeko egun-pasa antolatu dute ekainaren 21erako. Izenematea ekainaren 18a baino lehen egin behar da udaletxean.

Mendabian hamarretakoa eta ardo dastaketa egingo dute, Barón de Ley upategian. Ondoren, Vianara joango dira, eta Santa Maria eliza bisitatuko dute gidari batekin. Santa Maria XIII. mendeko eliza gotikoa da. Bisitaren ostean, Balcón de Torres palazioa bisitatuko dute. Azkenik, bazkaria eta dantzaldia izango dituzte Hostal Venecian.

> DURANGALDEA ASTEON

Udalekuan izena emateko deia

INSKRIPZIOA > Mañariko udalekuan izena emateko deia egin du udalak, eta hilaren 13ra arte egongo da izena emateko aukera. Udaletxean eta liburutegian jasoko dituzte eskaerak.

Ekainaren 23tik uztailearen 11ra bitartean garatuko da udalekua, 3-10 adin tarteko umeentzat. 09:30etik 13:00etara izango da ordutegia.

Paella lehiaketa Muruetorren

JAIK > Durangoko Muruetorren auzoan jaiak ospatuko dituzte ekainaren 21ean, eta, besteak beste, paella lehiaketa egingo dute. Antolatzaileek inskripzioarako datak eman dituzte: gaur eta hurrengo barrikuan, 18:00etatik 19:00etara, eman ahal da izena auzo elkartearen bulegoan.

Autobusak Araba Euskarazera

DURANGO > Ekainaren 15ean Araba ikastolen aldeko Araba Euskaraz jaiak ospatuko dute Lapuebla de Labarcan. Durangotik autobusak antolatu dituzte; 08:30ean irteera dira Durangoko autobus geltokitik. Berbaro euskara elkartearen egoitzan erosi daitezke autobus txartelak, hamabi euroan.

Maite Inguntza Goti gogoan!

Hamabost bat egun ez dira bete hondiokarren Ijorretaren desanexioaren 25. urteurrena zela-eta, zilarrak, indarrak, kereizak... aitatu genduzanetik hemen bertan, eta hara non aste honetan bertan Maite Inguntza Goti gure artetik joan jakun, gaixoaldi luze baten ostean.

Memoria-oroiaren historikoa berbak bala-bala gure artean darabilguzanean, Durangogandik desanexioetako Ijorretako Gestoran, EAJren ordezkari

lez, emakume-pertsona aktiboa gogorarazo gura dogu. Ekinean zorrotz, batzarretara huts egin barik. Eretxi ugari izan arren, norabidean zalantzarik bakoa, bat egiten ekiana; herri propioa izateak batzen gintuen.

Senitartekooi samin aldian gure txera; familia politikoari, barriz, alkarguneak ea sendotzeko gai garen; eta Maite Inguntza Gotiri, bidelagun errimean izan genduan horri, gorazarre!

Mikel Sopelana Basauri eta Antton Mari Aldekoa-Otalora Zamalloa, lurretako Desanexiorako Gestoran HBko kideak.

PNV: Utzi bakean zornotza

Gure memoria oso ahula denez, gainbegiratu bat egingo diogu azken hamabost urte hauetan PNVren eskutik gertatu den gure herriaren aldaketari. Zelaieta parkeko lau lore politiek ezin dute hainbeste urtetako gestio txarra ezkutatu.

Herriarentzat “proiektu estrategikoa” eta “aurrerabide” hitzaren atzetik, ama lurrak (eta ama lurrarekin guk) itzeleko eraso jaso du; hori bai, dena izan da Zornotzako biztanleen ongizatearen alde. Bai zera! Proiektu estrategikoaren izar-tzat Boroako zentral termikoa daukagu, gaur egun, urte erdiz geldirik dagoena. Kasualitatea izan da eraiki zenetik, bai kutsadura atmosferikoak, bai argindarraren fakturak igoera handia eduki izana. Gure herriarentzat beste proiektu “beharrezko” bat Zelaieta parkearen azpiko aparkalekua izan zen, gaur egun hutsik dagoena eta aparkaleku gehienak saldu barik dauzkana. Gogoratu

behar da bi proiektu horiek Zornotzako herritar gehienek iritziaren kontra egin zituztela: zentral termikoaren kontrako iritzia erreferendum baten bidez adierazi zen, eta aparkalekuaren aurkakoa sinadura biltzeko baten bidez. AHTak eta frackingak egiten duten txikizkia beste baterako utziko dugu. Bukatzeko, gure kontsumismo aseezina errazago egiteko, PNV, Dendariak dendarien elkartearen laguntzarekin, prest agertu da udaletxeko arau subsidiarioak aldatzeko, herriaren merkataritza-gune handi bat eraikitzeko. Dendariak alde: nork ulertzen du hori? Euren dendaren itxiera ekarriko du, eta, hala ere, alde? Ulertezina. Hori guztia kontuan hartuta, zergatik ez da ezer gertatzen? Datorren hauteskundeetan betikoei bozkatuko diezue? Nahikoa da, Zornotzak aldaketa behar du, eta herritarrok bultzatu behar dugu aldaketa hori.

Xabier Gutierrez (Zornotza)



astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9, 48215
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia
-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpidean jarraituz zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).

Berbaz

Iraide Donaire Hidalgo | Inurri Eskauteko monitorea | Durango, 1993

“Lehenengo kanpamentura joan nintzenean, nire lekua hauxe zela konturatu nintzen”



> BERBAZ Jone Guenetxea
Iraide Donaire ez da Inurri Eskauteko kidea txikitatik. Praktikak egitera Durangoko taldera joan zenean, lagun talde handi bat aurkitu zuen. Harrezkero, Inurrin dihardu monitorea. Durangoko eskautek ospakizun handia dute asteburuan. Inurri 30 urte bete dituela-eta, kanpamentua antolatuko dute Zuhatzola parkean.

Zelan sortu zen Inurri Eskaut taldea?

Alberto Pérez Pastor *Periko* izan zen sortzailea, Jesuitetan. Gazte batzuekin Dukebaso baserrira joaten hasi ziren, Santa Luzian. Gazteek gustuko zuten naturan egotea, eta fedea ere zutabe garrantzitsua zen.

Zeintzuk dira elkartearen oinarriak?

Eskaut moduan gura duguna da gure gazteak pertsona kritikoak eta autonomoak izatea. Era berean, gizartean inplikatu daitezen nahi dugu. Gure hiru ardatzak formakuntza, gizartea eta fedea dira.

Une honetan zenbat umek eta gaztek dihardute Inurrin?
8 eta 18 urte bitarteko umekin

“*Eskaut moduan gura duguna da gure gazteak pertsona kritikoak izatea*”

eta gazteekin dihardugu. Bost adar ditugu: Koskorak, Kas-kondoak, Oinarinak, Azkarrak eta Trebeak. Ehun ume eta gazte inguru dira. Horretaz gainera, Asabak taldea monitorea ohiek osatzen dute. Iñaki abadea taldeko *konsiliaria* da, eta beti dabil laguntzen. Gainera, gurasoen taldea ere badugu.

Zelako ekintzak antolatzen dituzue?

Herrian antolatzen diren ekintzetan parte hartzen dugu. Esate baterako, Munduko Arrozak jaietan edo Lilakrosean. Asteburu-pasa bat antolatzen dugu hiru hilero. Mendi irteerak ere antolatzen ditugu. Nagusiek batzarrak egiten dituzte, eta beraien bukaerako proiektua lantzen joaten dira. Proiektua herrialdeko beste lau eskaut talderekin prestatzen dute. Aurten, nagusiek auzolandegi bat egingo dute

Gasteizen. Boluntzariotza sustatzeko ekimena izaten da.

Gazteak monitorea izatera pasatzen dira gero?

Gazteek gizartean konpromiso bat hartzea da gure helburua. Ez du zertan gure taldean izan. Beste elkarre batean ere izan daiteke. Mundu hobe baten alde zer edo zer egiteko konpromisoa hartzea da kontua.

Zuk ere txikitatik diharduzu elkartean?

Ez, monitorea moduan sartu nintzen. Haur Hezkuntza ikasten nabil Gasteizen. Monitorea izateko ikastaroa ikasten nabilela praktikak egitera etorri nintzen elkartera. Lehenengo kanpamentua hainbeste bizi izan nuen, ezen neure buruari esan nion: “Hau da nire lekua”. Hauxe da monitorea lanetan nabilen hirugarren urtea.

Zer eman dizu zuri Inurrin?

Haur Hezkuntza ikasten nabilen arren, hezkuntza ez-arautua ere gustuko dut. Umekin eta gazteekin lan egitea asko gustatzen zait. Pertsona gisa hazteko aukera ematen dit. Autonomia handia nireganatu dut, ardurak hartzen eta talde lanean jardun

ten ikasi dut. Lagunak egiteko aukera ere ematen du. Nire bigarren familia dela esango nuke. Ez dut dirurik irabaziko, baina pertsonalki asko ematen dit.

Urteurrena ospatzeko zer ekintza antolatu duzue?

Joan zen domekan ekin genion 30. urteurrena ospatzeari. Denboraren makina bat asmatu genuen, eta boluntario ohiekin Inurri izan dituen lokaletan zehar ibilaldia antolatu genuen. Jendeak Garai jauregiko lokala ezagutzen du, baina gehienek ez zituzten aurreko guneak ezagutzen. Elkartearen historia eta anekdotak kontatu zizkiguten. Dukebaso baserrian amaitu genuen, eta han hamaiketako egin genuen.

“*Asteburuan gure udako kanpamentuaren antzeko bat antolatuko dugu*”

Asteburuan kanpaleku berezia antolatuko duzue.

Asteburuan gure udako kanpamentuaren antzeko bat antolatuko dugu Zuhatzola parkean. Dendak, barrakoiak, sukaldea eta harrakoa egiteko harraskak muntatuko ditugu, besteak beste. 130 lagun inguru elkartuko gara. Inurrin parte hartu duten familia guztiak daude gonbidatuta. Batzuk ez dira lo egi-

tera geldituko, baina eguneko ekintzetan parte hartzeko prest daude.

Zeintzuk izango dira antolatuko dituzuen ekintzak?

Goizeko ekintza kanpamentua muntatzea izango da. Horrela, udan zer egiten dugun ezagutzeko aukera eskainiko diegu gurasoei, umeei eta gazteei. Ondoren, bazkaritarako elkartuko

“*Guraso batzorde bat dugu, eta lan oso ona egiten dute. Laguntza handia ematen digute*”

gara. Arratsaldean, argazki eta logo lehiaketako sariak banatuko ditugu. Gainera, antzerkiak ere egingo ditugu taldeka. Abesti bat aukeratu, eta bakoitzak prestatu duena erakutsiko du. Ondoren, meza egingo dugu 30 urte bete ditugula guztion artean ospatzeko. Afariagaz eta gaubelagaz amaituko dugu eguna. Domeka goizean denok batera gosalduta, eta kanpamentua batuko dugu. Ingurua arakatuko dugu bukaeran. Ilara batean ipiniko gara den-dena batu dugula ziurtatzeko. Amaieran *Agur eskaut* abestuko dugu.

Udara begira, zer plan duzue?
Dena martxan daukagu dagoeneko. Zuhatzola joango gara (Nafarroa). Uztailaren 14an hasiko da, eta 26an amaituko da gurasoekin eta asabekin batera.

Gurasoek parte hartzen dute?

Guraso batzorde bat dugu, eta lan oso ona egiten dute. Laguntza oso handia dira guretzat. Esate baterako, udan, udalekuak hasi aurretik, asteburu bat lehenengo kanpamentua muntatzera joaten gara gurasoekin.



Inurri Eskaut taldearen argazkia.

INGURUMEN GEHIGARRIA



Zabor organikoaren birziklapena, hedatzen dabilen jarduera soziala

Berriztarrak izan ziren aitzindari hondakin organikoak birziklatzeko egitasmoetan

Zabor organikoa zelan bereiztu. Hori da birziklapenaren arloan gaur egun ezkerik handiena sortzen duen gaia. Badira urte batzuk beira, plastikoa eta papera bereizteko politika martxan ipini zela, eta honakoa birziklatze prozesuan jauzi bat emateko sasoia dela dirudi. Durangaldean hainbat proiektu sortu dira azken urteotan, bilketagaz edo konpostajeagaz lotutakoak. Momentuz ez da birziklapen osoa lortzen, borondatezko ekimenak dira eta. Herririk herri hedatzen dabilen jarduera soziala da materia organikoa birziklatzea.

Berriz izan zen aitzindari gaiagaz arduratzen. Konpostajearen inguruko dinamikak piztu ziren lehenengo, eta horrek egitasmo berritzaile baten sorrera ekarri zuen 2012an: konpostaje planta. *Berriziklatu* lelopean, 60 bat familia eta zenbait merkataritza-gune hondakin organikoa bereizten hasi ziren, gero aterik ate batzeko. Udaleko beharginek jaso, eta Berrizburun dagoen fabrikara eroaten dute, tratatu eta konpost bihurtzeko. Konpost hori, esaterako, lurrak ontzeko erabiltzen da, eta, horrela, birziklapenaren zirkloa itxi egiten da.

Bigarren fase batean, kontainer marroiak ere ipini zituen udalak, aterik ateko sistema alboratu barik.

Familien erdia partaide

Mallabian 2012. urtearen amaieran hasi ziren konpostaje sistema ezartzen. Baserri eremuetan bizi diren hainbat familia dabilta konposta egiten, eta Mila Mondragon alkateak azaldu du oraindik ere jendea izen-ematen dabilela, eta "harrera ona" dau-

kala ekimenak. Bestalde, herriguneari auzokondea garatzen dute, lau eremutan banatuta. Mondragonek balorazio oso ona egin du, herriko familien ia erdia delako egitasmo partaide. "Konpostgune bat handitu beharrean gaude, erabiltzaile gehiagori aukera emateko".

Mila Mondragon Mallabiko alkatea:
"Konpostgune bat handitu beharrean gaude"

David Latxagak emandako datuen arabera, 800 familiak darabilte edukiontzi marroia

7.430 kilo hil bakarrean

Zornotzarrek bosgarren kontainerren aldeko apustua egin dute. 2013. urteko urrian *Ongi etorri* izeneko kanpaina ipini zuen martxan udalak, herriguneari osoan kontainer horiek zabaltzeko. Maiatzean beste bederatziz ipini dituzte, eta, dagoeneko, 39 daude herrian. David Latxaga alkateak emandako datuen arabera, 800 familiak darabilte edukiontzi marroia, eta horren emaitza ona begi-bistakoa da: apirilean 7.430 kilo materia organiko jaso zituzten.



Berrizko konpostaje fabrian, beharrean.



Mallabian konpostagailuekin dabilta, auzoan eta herriguneari.



Zornotzako bosgarren fasearen aurkezpena.

**ZELULOSAZKO ONTZIAK
BIODEGRADAGARRIAK
ETA BIRZIKLAGARRIAK**



www.soul-cemosa.es



cemosa
CELULOSAS MOLDEADAS, S.A.

CEMOSA Autonomía, 2 - ATXONDO (Bizkaia)
Tel.: 946 231 717 - Faxe: 946 231 799

Abadiñon, Elorrion eta Zaldibarren bosgarren kontainerra ipiniko dute datorren urtean

Amankomunazgoak Iurretan eta Traña-Matienan hasitako ekimenaren balorazioa egin du



Mandaluniz, Zarrabeitia, Zuazo eta Areitiourtena, martitzeneko prentsaurrekoan.

Hondakin organikoa batzeko erabiltzen den kontainer marroia, bosgarrena, Elorrion, Zaldibarrera, eta Abadiñoko Zelaietara eta Muntzaratzera ere ailegatuko da hurrengo urtean. Amankomunazgoaren eskutik Iurretan eta Traña-Matienan

egin da urtarriletik hona edukiontzi hori, eta ekimenaren balantzea egiteko prentsaurrekoa eskaini dute arduradunek. Epe honetan 6.490 kilo batu direla adierazi dute.

Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidentek esan

du ekimena arrakastatsua izan dela, eta, horregatik, balorazio positiboa egin dutela. 348 familia dabilta parte hartzen, etxean sortzen duten zabor organikoa kontainer marroian sartzen. 157 dira iurretarrak, eta 191 matienarrak. Aurreikuspe-

nak gaintitu direnez, batzuek itxarote-zerrendan egon behar izan dute duela gutxira arte. Gainera, hemezortzi taberna edo denda ere gehitu dira. Amankomunazgoak Inguru izeneko enpresa kontratatu zuen kan-

Amankomunazgoko presidentek esan du ekimena arrakastatsua izan dela

paina zabaltzeko, eta bertako Leire Zuazok azaldu du hiruna foro egin dituztela eremu bietan. Organikoa batzeko ontzia eta poltsak doan banatu dituzte, eta erabiltzaile bakoitzak giltza bat dauka, kontainerrak itxita daude eta.

75 familia konpostaje

Bosgarren kontainerragaz batera, auzoetan autokonpostajea egiteko aukera eman zuten. 75

lagunek eman zuten izena, eta prozesuaren jarraipenaz arduratu den IK4-Azterlaneko Ander Areitiourtenak adierazi du konpostagailu guztiak martxan daudela. “Ikusi dugu jendea pozik dagoela”, dio teknikariak. Horiei ere materiala eta formakuntza eman zizkieten. Gainera, Iurretako suhiltzaileak eta lau ikastetxe ere batu dira proiektura; Iurretako Juan Orobiogotian eta Traña-Matienako eskolan badabilta erabiltzen, eta Maiztegin eta Abadiñoko institutuan hurrengo ikasturtean hasiko dira. Ez da lehenengo konpostaje esperientzia, 2012tik Izurtzako eta Mañariko 50 etxetan badabiltalako horretan.

Tokiko Agenda 21eko Ismene Mandalunizek ere balantze ona egin du egitasmo orokorrak: “Jendearen harrera eta interesa oso altua izan da”. Kontainerren kasuan, herritar batzuk itxarote-zerrendan egon direnez, auzokideagaz partekatu dutela nabarmendu du adibide lez.

Zarrabeitiak kontaktu duenez, Aldundiak osorik lagundu du diruz proiektua. Orain, Abadiñora, Elorrion eta Zaldibarrera zabaltzeko laguntza eskatuko dute. Ez du data zehatzik eman, baina segurutik 2015agaz batera egingo da hedapena.

URA BIZIA DA

Urik gabe ez dago ez garapenik ez ongizaterik. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan, egunero egiten dugu lan kalitateko hornikuntza eta gure ingurunea zainduko duen eta pertsonen bizitza-kalitatea hobetuko duen saneamendu aurreratua bermatzeko.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
 Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia
www.consorciodeaguas.com

Otxandioko eta Zaldibarko eskolak txakurren kaken kontra

Jabeek txakurren kakak jaso ditzaten eskatzen dugu ikasleok



> AMANKOMUNAZGOA

Pilotalekuan, eskolako patioan eta umeek jolasten duten lekuan txakurren kakak aurkitzea ohitura bihurtu da azken aldian, Otxandioko eta Zaldibarko eskoletan.

Hori dela-eta, zerbait egin behar zela pentsatu genuen, arazoak eragin handia daukalako gure eskolako egunerokoan.

Lehenik, idatzi bat egin, eta udaletxera jo genuen gure kezka azaltzera.

Eskola Agenda 21 programaren barruan, Emaus Fundazioagaz kontaktuan jarri ginen, beraien laguntza eta proposamenak jasotzeko. Haiek emandako ideietariko bat lelo eta kartel batzuk sortzea, eta gure kezka herri guztira zabaldu eta ezagutaraztea izan zen.

Eskolan adosturiko leloekin eta irudiekin kartelak egin genituen, eta kalera atera ginen, txakurren kaken ondoan kartelak jarrita, argazkiak ateratzera.

Aurreko asteetan udaletxera joan gara egindako lana azaltzera, eta alkatearen laguntza eskatu dugu, txakurren kaken kontrako kanpaina egiteko.

Espero dugu gure lanak zerbaitetarako balio izatea, eta erantzunak jaso eta erantzun horiek egia bilakatzea.

Denon esku dago gertakari hau saihestea, eta herri arduratsu eta garbi bihurtzea.

Mesedez, jabearen lana da txakurren kakak jasotzea!

Otxandioko eta Zaldibarko eskole-tako ikasleak eta irakasleak.

Kontsumo arduratsua eta kontsumismoa Durangaldean

Durangaldeko 15 ikastetxek kontsumismoa landu dute aurtan



> AMANKOMUNAZGOA

Eskolako Agenda 21 programaren barruan, Durangaldeko ikastetxeek kontsumismoa eta kontsumo arduratsua lantzeko aukera izan dugu ikasturte honetan. Guztira hamabost ikastetxek hartu dugu parte ekintzetan.

Lehenengo, tailerra egin genuen eskolan, kontsumismoa eta iragarkiek horretan duten eragina aztertzeke. Gero, kalera atera ginen, diagnostikoa egitera. Herriarrek kontsumismoa eta kontsumo arduratsua ezagutzen duten ikustea izan zen helburua. Guztira 433 pertsonak hartu zuten parte diagnostikoan, eta ateratako ondorio orokorra

hau da: gehiengoak uste du kontzeptu hauek ezagutzen dituela, baina erdiek baino ez dituzte benetan ezagutzen. Gainera, kontsumo arduratsua ondo ezagutzen dutenetatik %60 emakumeak dira: zergatik izango ote da?

Ondoren, eskolen arteko foroetan herriarrek kontsumo arduratsua hobeto ezagutzeko egin daitezkeen ekintzak aztertzen eta adosten ibili ginen, gero herri bakoitzeko udal foroan aurkezteko, eta alkateari ekintza horiek egiteko laguntza eskatzeko: herri kanpainak, hitzaldiak, tokiko produktuen azoka eta trukea, kasu. Zer egin dezakegu kontsumo arduratsua gure herrian indartzeko?

<p>ERREFUSA FRACCIÓN RESTO</p> 	<table border="1"> <tr> <td>BAI ✓</td> <td> <ul style="list-style-type: none"> Materia organikoa. Birziklatu ezin diren hondakinak. </td> </tr> <tr> <td>EZ ✗</td> <td> <ul style="list-style-type: none"> Hondakin arriskutsuak: pilak, bateriak, aerosolak, etab. Hondakin elektriko eta elektronikoak. Obra-hondakinak. Ehun-gaiak. Inausketako hondakinak. Altzariak eta egurra. </td> </tr> <tr> <td>NOLA?</td> <td> <ul style="list-style-type: none"> Ongi itxitako poltsa batean. Edukiontzi barruan. </td> </tr> </table>	BAI ✓	<ul style="list-style-type: none"> Materia organikoa. Birziklatu ezin diren hondakinak. 	EZ ✗	<ul style="list-style-type: none"> Hondakin arriskutsuak: pilak, bateriak, aerosolak, etab. Hondakin elektriko eta elektronikoak. Obra-hondakinak. Ehun-gaiak. Inausketako hondakinak. Altzariak eta egurra. 	NOLA?	<ul style="list-style-type: none"> Ongi itxitako poltsa batean. Edukiontzi barruan. 	<p>PAPERA ETA KARTOIA PAPEL Y CARTÓN</p> 	<table border="1"> <tr> <td>BAI ✓</td> <td> <ul style="list-style-type: none"> Egunkariak eta aldizkariak Folioak eta gutun-azalak. Paperezko ontziak edo poltsak. Kartoizko kutxak. Kartoizko arrautza-ontziak. </td> </tr> <tr> <td>EZ ✗</td> <td> <ul style="list-style-type: none"> Paperezko musuzapiak. Sukaldeko papera. Paperezko ahozapiak eta mahai-zapiak. Komuneko papera. Kortxo zuria. </td> </tr> <tr> <td>NOLA?</td> <td> <ul style="list-style-type: none"> Kutxa tolestuak. Papera graparik gabe. Plastikozko poltsarik gabe. </td> </tr> </table>	BAI ✓	<ul style="list-style-type: none"> Egunkariak eta aldizkariak Folioak eta gutun-azalak. Paperezko ontziak edo poltsak. Kartoizko kutxak. Kartoizko arrautza-ontziak. 	EZ ✗	<ul style="list-style-type: none"> Paperezko musuzapiak. Sukaldeko papera. Paperezko ahozapiak eta mahai-zapiak. Komuneko papera. Kortxo zuria. 	NOLA?	<ul style="list-style-type: none"> Kutxa tolestuak. Papera graparik gabe. Plastikozko poltsarik gabe.
BAI ✓	<ul style="list-style-type: none"> Materia organikoa. Birziklatu ezin diren hondakinak. 														
EZ ✗	<ul style="list-style-type: none"> Hondakin arriskutsuak: pilak, bateriak, aerosolak, etab. Hondakin elektriko eta elektronikoak. Obra-hondakinak. Ehun-gaiak. Inausketako hondakinak. Altzariak eta egurra. 														
NOLA?	<ul style="list-style-type: none"> Ongi itxitako poltsa batean. Edukiontzi barruan. 														
BAI ✓	<ul style="list-style-type: none"> Egunkariak eta aldizkariak Folioak eta gutun-azalak. Paperezko ontziak edo poltsak. Kartoizko kutxak. Kartoizko arrautza-ontziak. 														
EZ ✗	<ul style="list-style-type: none"> Paperezko musuzapiak. Sukaldeko papera. Paperezko ahozapiak eta mahai-zapiak. Komuneko papera. Kortxo zuria. 														
NOLA?	<ul style="list-style-type: none"> Kutxa tolestuak. Papera graparik gabe. Plastikozko poltsarik gabe. 														
<p>ONTZI ARINAK ENVASES LIGEROS</p> 	<table border="1"> <tr> <td>BAI ✓</td> <td> <ul style="list-style-type: none"> Plastikozko ontziak: Botilak, garbitzeko eta bukatzeko produktuen ontziak, korbxo zuriz egindako erretailuak, plastikozko ontziak, saltokietako plastikozko poltsak, etb. Metalezko ontziak: Kontserba latak, edari latak, aluminiozko papera, botilen tapoiak eta kristalesko potoen tapak. Tetrabrickak. </td> </tr> <tr> <td>EZ ✗</td> <td> <ul style="list-style-type: none"> Ontzi arinak ez diren plastikoa: Jostailuak, hortzetako eskuilak, plastikozko kuboak, gomazko eskularruak, etb. </td> </tr> <tr> <td>NOLA?</td> <td> <ul style="list-style-type: none"> Erabat hustuta. Tolestuta. </td> </tr> </table>	BAI ✓	<ul style="list-style-type: none"> Plastikozko ontziak: Botilak, garbitzeko eta bukatzeko produktuen ontziak, korbxo zuriz egindako erretailuak, plastikozko ontziak, saltokietako plastikozko poltsak, etb. Metalezko ontziak: Kontserba latak, edari latak, aluminiozko papera, botilen tapoiak eta kristalesko potoen tapak. Tetrabrickak. 	EZ ✗	<ul style="list-style-type: none"> Ontzi arinak ez diren plastikoa: Jostailuak, hortzetako eskuilak, plastikozko kuboak, gomazko eskularruak, etb. 	NOLA?	<ul style="list-style-type: none"> Erabat hustuta. Tolestuta. 	<p>BEIRA / VIDRIO</p> 	<table border="1"> <tr> <td>BAI ✓</td> <td> <ul style="list-style-type: none"> Beirazko botilak. Kontserba potoak eta ontziak. Kosmetika-produktuen ontziak. </td> </tr> <tr> <td>EZ ✗</td> <td> <ul style="list-style-type: none"> Era guztietako BEIRAK: Ispiluak, edalontziak, leihoak, bonbillak eta fluoresenteak, platerak. TAPOIAK, kortxoak, metalezkoak, plastikozkoak, etab. </td> </tr> <tr> <td>NOLA?</td> <td> <ul style="list-style-type: none"> Erabat hustuta. Plastikozko poltsarik gabe. </td> </tr> </table>	BAI ✓	<ul style="list-style-type: none"> Beirazko botilak. Kontserba potoak eta ontziak. Kosmetika-produktuen ontziak. 	EZ ✗	<ul style="list-style-type: none"> Era guztietako BEIRAK: Ispiluak, edalontziak, leihoak, bonbillak eta fluoresenteak, platerak. TAPOIAK, kortxoak, metalezkoak, plastikozkoak, etab. 	NOLA?	<ul style="list-style-type: none"> Erabat hustuta. Plastikozko poltsarik gabe.
BAI ✓	<ul style="list-style-type: none"> Plastikozko ontziak: Botilak, garbitzeko eta bukatzeko produktuen ontziak, korbxo zuriz egindako erretailuak, plastikozko ontziak, saltokietako plastikozko poltsak, etb. Metalezko ontziak: Kontserba latak, edari latak, aluminiozko papera, botilen tapoiak eta kristalesko potoen tapak. Tetrabrickak. 														
EZ ✗	<ul style="list-style-type: none"> Ontzi arinak ez diren plastikoa: Jostailuak, hortzetako eskuilak, plastikozko kuboak, gomazko eskularruak, etb. 														
NOLA?	<ul style="list-style-type: none"> Erabat hustuta. Tolestuta. 														
BAI ✓	<ul style="list-style-type: none"> Beirazko botilak. Kontserba potoak eta ontziak. Kosmetika-produktuen ontziak. 														
EZ ✗	<ul style="list-style-type: none"> Era guztietako BEIRAK: Ispiluak, edalontziak, leihoak, bonbillak eta fluoresenteak, platerak. TAPOIAK, kortxoak, metalezkoak, plastikozkoak, etab. 														
NOLA?	<ul style="list-style-type: none"> Erabat hustuta. Plastikozko poltsarik gabe. 														

Durangaldeko II. Kopla Txapelketa hartuko du Plateruena antzokiak

Hamar bertsolari ibiliko dira neurri laburrean, bizi-bizi, ekainaren 13an



Iazko kopla txapelketako partaideak, amaieran, batera kantatzen.

> BERTSOLARITZA M. Onaindia Ekainaren 13an jokatu da Durangaldeko II. Kopla Txapelketa, Plateruena Kafe Antzokian. Iazko arrakasta ikusirik, ekime-

nari segida ematea erabaki du Durangaldeko Bertso Eskolako antolatzaile taldeak. Bertsolarietaz gozatzeko beste modu bat eskaintzera dator; izan ere,

hamar bertsolari euren ohiko eskematik aterako dira neurri laburrean kantatzeko.

Peio Azkarate, Ander Duñabeitia, Igor Galartza, Xabier

Irakulis, Unai Iturriaga, Peru Magdalena, Beñat Romero, Ander Salaberria, Julen Sololuze eta Beñat Ugartetxea dira partaideak. Ugartetxea izen zen iazko irabazlea, eta txapelketa defendatzeko ardua edukiko du. Izen berezi hori ipini diote antolatzaileek inbutu formako garaikurrari.

Badauka zorotik apur bat

Irabazleari inbutua jantziko diote buruan, sasoi batean zoroekin egiten zen lez. Izan ere, kopla txapelketak badauka apur bat zorotik edo ganberrotik. Antolatzaileen esanetan, irabazteak baino, garrantzi handiagoa dauka bertsolariak eta entzuleak ondo pasatzeak. Bertsolariak hiru minutu eman beharko dute kantuan geratu barik, eta, neurri laburra izanda, bizi-bizi egingo dituzte ariketak. Lehenengo fasean hiruna ofiziotan parte hartuko du bakoitzak; bigarren fasean lau bertsolari pasako dira; eta, azkenik, bik buruz buruko finala jokatu dute. Final horretan, adibidez, kartzelako gaia emanda, bakarka bete beharko dute hiru minutuko denbora. Bertsolariak erronka honetarako gaiak ematen Nahia Arrese eta Amaia Ugalde ibiliko dira.

Bertsolarietaz gainera, zaleek ere edukiko dute protagonis-

moa; iaz lez, aurten ere eurak izango dira epaile. Ez da egongo epaimahai ofizialik, zaleen iritzia balioko du. Mahaien bueltan, lagun taldeka egingo dituzte puntuaketak; norbere sentsazio eta gustuen arabera sailkatuko dituzte bertsolariak.

Musikaz jantzitako gala

Bertso saioa baino, bertso gala bat izango dela esan daiteke. Saioaren aurretik afaria egongo da, 20:30ean, eta txartelak salgai daude Plateruenean, 15 euroan.

Zaleek ere edukiko dute protagonismoa; iaz lez, aurten ere eurak izango dira epaile

Ostean hasiko da saioa, 22:30 inguruan –saiora bakarrik agertu gura duenak sarrera libre edukiko du–. Eta guztia musikaz jantzita egongo da, Itsua DJak ipiniko duen musikaz jantzita, hain zuzen ere. Saioaren hasiera eta atsedendia girotuko ditu, eta, antolatzaileek aurreratu dutenez, sorpresa bat baino gehiago eskainiko du bere kolaboratzaileekin batera.

Koplen bueltan gau eder bat pasa gura duenak hurrengo barikuan dauka zita Plateruenean.

Xabier Amuriza ohorezko euskaltzain izendatu dute

Joan zen barikuan, Donostian egin zuen bilkuran 12 ohorezko euskaltzain berri izendatu zituen Euskaltzaindiak; horietako bat da Xabier Amuriza

> EUSKARA J. Derteano Euskaltzaindiak aldiro-aldiro izendatzen ditu ohorezko euskaltzainak, bere arautegiaren arabera, euskarari egindako mesede bikainengatik. Azken izendapena 2010ean egin zuen. Gaur egun, Euskaltzaindiak 39 ohorezko euskaltzain ditu. Izendapen horregaz “oso pozik” dagoela adierazi du Amurizak.

Xabier Amurizaz gainera, hauek dira izendatu dituzten gainerako ohorezko euskaltzainak: Paulo Agirrebaltzategi, Angel Aintziburu, Dionisio Amundarain, Xipri Arbelbide, Antonio Campos, Maite Idirin, Mixel Itzaina, Jon Landaburu, Joan Martí, Martin Orbe eta Manu Ruiz Urrestarazu.

Xabier Amuriza (Etxano, Zornotza, 1941) euskaltzain urgazle izendatu zuten 1967an. Bertsolari, kazetari, itzultzaile eta

idazlea da. Eliz ikasketak egin zituen Zornotzan eta Derioko seminarioan. 1965ean apaiztu ondoren, Bizkaiko Gizaburuagan eta Amoroton egin zuen lan. Gogor apaiz taldeko kide izan zen. Bilboko Elizbarrutian itxialdia eta gose greba egiteagatik atxilotu zuten 1969an, eta zazpi urtez egon zen preso Zamorako espetxean. Ondoren apaiz izateari utzi zion.

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia bi aldiz (1980 eta 1982) jarraian irabazi zuen. 1986ko Txapelketa Nagusian finalista, eta 1987ko Arabako-Bizkaiko Txapelketan txapel-dunorde izan zen.

Artikulu ugari idatzi du hainbat komunikabidetan: *Punto y Hora de Euskal Herria*, *Egin*, *Euskadi Información* eta *Gara*. Lau urtez *Anboto* astekarlan lanean aritu ondoren, 2006an



Izendapenagaz “oso pozik” Amuriza.

erretiroa hartu zuen. Nobelak, poesiak, saiakerak eta bertsolari buruzko liburuak idatzi ditu. Azken argitalpenak: *Osoa, lehiakorra, nazionala*. *Euskara batuaren bigarren jaiotza*; *Zazpi ebidentzia birjaiotzarako*; eta *4x4 operazioa* (Joan ziren zazpi zikloko laugarrena). Ziklo horretan Gogor apaiz mugimenduaren historia kontatzen du.

Abesbatzen Eguna eta SAC Zornotzaren urteurrena

SAC Zornotza koruaren urteurrena ospatuko dute

> MUSIKA Itsaso Esteban Bizkaiko Abesbatzen XXXI. Eguna ospatuko dute, ekainaren 8an, Zornotzan. 48 abesbatzeta-ko 1.000 kantarik hartuko dute parte egun horretarako Bizkaiko Abesbatzen Elkartek antolatutako egitarauan. Bizkaiko abesbatzeta kideak 10:00etan ailegatuko dira Zornotzara, eta Zelaieta zentroan entseguak egin ostean, 11:15ean kalejira hasiko dute herriko plazaraino.

Plazan eskainiko dute, 11:45ean, eguneko emanaldi nagusia, bazkaritara joan orduko.

Asteburuan ospakizun bi-koitza izango du SAC Zornotza abesbatzak, izan ere, taldea sortu zela 60 urte bete dira aurten. Urteurren hori ospatzeko, Zumaiako abesbatzazagaz kalejira egingo du bihar eguerdian, eta, 21:00etan, Donostiako Easo abesbatzaren emanaldia izango da Zornotza Aretoan.



Atzo egin zuten asteburuko egitarauaren aurkezpena.

Durangoko Euskal Astean, bihar eta etzi: dantzak eta kontzertua

Durango Hiria txistu lehiaketako lan saridunak aurkeztuko dituzte domekan

> MUSIKA I. ESTEBAN

Durangoko kultur eta kirol arloko hainbat elkarteren bultzadaz antolaturiko Euskal Asteo egitarauan falta ezineko hitzordu bi izango dira, asteburu honetan, Durangon. Ekainaren 8an, 19:00etan, San Agustin kultur gunean izango da Silboberri Txistu Elkarteak antolatzen duen Durango Hiria konposizio lehiaketan sarituriko obren estreinaldirako emanaldia. Lehiaketaren zazpigarren edizioko obra irabazleak joko dituzte emanaldi horretan: "Txistua-ren doinuak bere alderdirik berritzaile eta garaikideenean" eskainiko dituzte.

Hilario Extremianaren txistu, danbolin, biolintxelo eta pianorako *Itzalak* lana estreinatuko dute, esaterako. Izan ere, obra horrek jaso du lehenengo saria. David Cantalejo bigarren eta hirugarren saridunaren *La*

cápsula del tiempo eta *Lamiak II* obrak ere joko dituzte. Domekan iragarriko dute, bestalde, Durango Hiria lehiaketaren 8. edizioa. Sariak handituko dituzte hurrengo deialdirako: 3.000

eurokoa izango da lehenengo saria, 1.500ekoa bigarrena, eta 750ekoa hirugarrena.

Euskal Astearen barruan urte gehienegindako ekitaldia eskainiko dute, bestalde, bihar,

19:45ean, eta etzi, 12:45ean, Andra Mariko elizpean: Tronperri dantza taldeak antolaturiko ekitaldia. Tronperri euskal dantzen emanaldia antolatzen duen 32. urtea izango da hau. Ehundik gora dantzari ariko dira ekitaldi horretan parte hartzen, eta Euskal Herriko sei herrialdetako dantzak izango dira bertan ikusgai: Bizkaiko, Zuberoako, Nafarroako, Arabako, Lapurdiko eta Gipuzkoako taldeak gonbidatu dituzte.



Euskal Herriko sei herrialdetako dantzak izango dira Andra Marian ikusgai.

Durangaldeko partaideak BBK aretoan, kantuan

> MUSIKA I.E.

Bilboko Kale Nagusiko BBK aretoan kantatuko dute, bihar, Euskal Kantuzaleen Elkarteak antolatzen duen Euskal Kantu eta Haur Kantari Txapelketetan parte hartu duten hainbat abeslarik. Azken urteotan txapelketa horretako haurren eta helduen sailtan irabazle izan diren hainbat kantari ariko dira emanaldian; tartean, Durangaldeko zenbait. Beste herri batzuetako kantariekin ariko dira Zaldibar, Durangoko, Abadiñoko eta Atxondoko abeslariak.

Tradizioko kantuak eta gaur egungo kanten bertsiok eskainiko dituzte Durangaldeko parte-hartzaileek: Amaiur Azkarate durangarrak, esaterako, Zea Mays taldearen *Negua joan da ta kanta abestuko du a capella*.

Julene Azpeitia lehiaketako sorkuntzen sari banaketa

452 lan jaso dituzte aurten: bertso, olerki eta ipuinak

> LITERATURA I.E.

Julene Azpeitia literatura lehiaketaren sari banaketa ekitaldia egin zuten domekan, Durango San Agustin kultur gunean. Euskal Astearen barruan egin

ohi dute sari banaketa ekitaldia urtero-urtero, 1983. urtean Durangoko Udalak lehiaketa lehenengo antolatu zuenetik.

Ipuinak, olerkiak eta bertsoak batuta, guztira, 452 idazlan

jaso dituzte aurten Durangoko literatura lehiaketa honetan. Joan zen domekan, Durangoko San Agustin kultur gunean batu ziren Felix Arkarazok aurkeztu zuen sari banaketa ekitaldian, lehiaketan parte hartu dutenak eta saridunak.

Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailako ikasleetatik hasi, eta helduen sailera arte, hamahiru sari banatu zituzten domekako ekitaldian. Olerkien ataleko 18 urtetik gorakoak, eta DBHko lehenengo eta bigarren mailak bertsoen sariak banatu barik utzi dituzte.

Irabazleei sariak eman zizkieten, domekan, Durangoko San Agustin kultur gunean. Laida Aizpurua, Nerea Unzueta, Magali Camarero, Izaro Solozabal, Iñaki Goitia, Mikel Balerdi, Irati Ruiz de Asua, Leire Duda-goitia, Aitor Bizkarra -sari bi jaso ditu-, Maddi Barrietabeña, Peio Azkarate eta Aitor Albistur izan dira saridunak.



Hamahiru sari banatu zituzten domekako ekitaldian. T.Angoitia.

GEURE DURANGALDEA

JOSE MARTIN URRUTIA, 'TXOTXE'

Irakaslea



Gora III. Errepublika! Gora Eibar!

Azken egunotan gure agintari politikoak zein ekonomikoak lau haizetara zabaltzen ari dira krisi ekonomiko honetatik burua ateratzen ari garela. Gure larrutik ondo ordainduta! Horren lekuko proposatu dituzten neurriak: murrizketak hezkuntzan, kulturaren, gizarte zerbitzuetan. Soldaten jaitsiera, lan baldintzen kaskartzea... Dena, amaigabeko lehiakortasun baten mesederako eta, noski, euren dirusariak biderkatzeko. Krisi finantzarioa abiatu zenean, kapitalismoaren heriotzaren aurrean geundela zirudien, baina badirudi indartuta irten zaigula, eta bere goseak ez duela mugarik, eta, behin mozturro herrira egokituta, bere zerean jarraituko duela.

Diruan, metal preziatuaren inguruan oinarritzen diren balioak inposatzen dizkigute behin eta berriro. Herriarrak haserre gaude; minduta, hobeto esanda. Lotsagarria iruditzen zaigu gertatzen ari dena, eta morrontza horri aurre egiten saiatzen gara. Muturren aurrean duguna aldatu nahi dugu, baina ez dakigu zelana. Eredu berrien bila gabiltza, beste balio batzuetan oinarritzen direnak, beste gizarte bat posible dela aldarrikatzeko.

Hara non, II. Errepublika berria zabaldu zen balkoi beretik, Eibarko futbol taldeko entrenatzaileak, diruaren kulturatik at dauden beste balio batzuen bitartez, arrakasta posible dela erakusten digun. Talde-lana, berdintasuna, helburu bateratuak, gardentasuna... Ez naiz ni futbolzalea, baina balkoi horri begira gizarte berri bat posible dela sinesten dut. Gora III. Errepublika! Gora Eibar!

San Agustin KULTUR GUNEA DURANGO-EDIA

ekainaren 27tik aurrera
UDA KALEAN BIZI

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.net

EKAINAK 6 - 19:30ean DOAN COMBO KONTZERTUAK MUSIKA KONTZERTUA

EKAINAREN 10etik 29ra ERO SEGUN LAZKANOREN ARGAZKI ERAKUSKETA ARGAZKI ERAKUSKETA

EKAINAK 12 - 19:00etan EUSKARAREN KATE HAUTSIK LIBURU AURKEZPENEA

Eguneko menua astelehenetik larunbatera Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

Hemen agertu gura badozu
deitu!

946 217 902

Altuna eta Urruzola txapelaren bila irtengo dira Mallabian, Aspegaz debuta egin aurretik

Gaur arratsaldean, Biharko Izarrak Pilota Txapelketako finalak jokatuko dituzte Mallabian



Biharko Izarrak txapelketan parte hartu duten pilotari guztiak aurkezpen egunean. Julen Uribe.

> PILOTA Joseba Derteano Gaur, 19:30ean, Biharko Izarrak Pilota Txapelketako finalak jokatuko dituzte Mallabian. Binaka, laster Aspegaz profesio- naletan debutatuko duten Jokin Altuna eta Xabier Urruzola, Xabier Santxoren eta Aitor Irustaren kontra lehiatuko dira; lau

t'erdian, Joanes Bakaikoa eta Eneko Labaka arituko dira.

Urtero legez, afizionatu mailako pilotari onenek jokatu dute Biharko Izarrak txapelketa, eta horren erakusgarri da finalera heldu den bikote bateko pilotari biek laster Aspegaz debutatuko dutela: Jokin Altunak (Amez-

keta, 18 urte) astebete barru jokatuko du profesional ibilbideko lehen neurketa, eta Xabier Urruzola (Asteasu, 24 urte) egun berean edo laster izango diren bere herriko jaietan estreinatuko da. Gainera, Aitor Irusta (Munitibar, 21 urte) ere gertu- gertutik jarraitzen dabilta As-

pe zein Asegarce. Beraz, oro har, profesioaletara saltoa emateko puntuan dauden arteko finala izango da gaurkoa.

Altuna aurrelari abila da, artista. Oraindik gazte mailako adina duen arren, errematerako jarrera guztiak menderatzen ditu, eta teknikoki pilotaririk

osatuenetakoa dela erakutsi du txapelketan zehar. Bere atzelari Urruzolak ibilbide luzea darma afizionatueta, baina aurtun gorakada nabarmena eman du. Horrek Biharko Izarrak txapelketa lehenengo bider jokatze- ko aukera eskaini dio, eta bikain aprobe txatu du. Ez da atzelari jotzailea, baina bai langilea eta defentsa handikoa. Parez pare kolpez gehiago den bikotea izango dute. Santxok (Usurbil, 23 urte) eskuma bizia du, eta saketik min egiten du. Irustak ere beso indartsuak ditu, eta asko luzatzen du pilota. Irusta da binakako finaleko bizkaitar bakarra.

Beraz, Santxo eta Irusta joko atzean kargatzen eta Urruzola zigortzen saiatuko direla dirudi. Jokamolde horretan asmatzen badute, Altunak adi ibili behar du, heltzen zaizkion pilota apurrak ahalik egokien aprobe txatzeko.

Bakaikoa eta Labaka kaiolan

Binakakoaren aurretik, lau t'erdiko finala jokatuko dute Joanes Bakaikoak (Etxarri-Aranaz, 17 urte) eta Eneko Labakak (Tolosa, 20 urte). Bakaikoa espezialista da kaiolan, eta teknikoki onenen parean dago. 17 urte besterik ez dituen arren, Asegarcegaz aurreakordio bat sinatuta du. Labaka, ostera, jotzaileago da, eta bizi erabiltzen du pilota. Beraz, jokamolde desberdin biren arteko finala ikusteko aukera egongo da lau t'erdiko finalean.

Lotina eta Alonso futbolari buruz ariko dira biharko kongresuan

Futbolaren inguruko bigarren kongresua antolatu dute biharko



Miguel Angel Lotinak defentsa lanaren inguruko eskola praktikoak emango ditu.

> FUTBOLA J.D.

Futbolariak zelaian erakusten dutenaren atzean lan talde zabal eta prestatu bat egoten da. Entrenatzaileak, prestatzaile fisikoak, medikuak, kirol psikologoak... Horiei guztiei zuzenduta, Gertasport enpresak Durango Uria II. futbol kongresua antolatu du biharko. Kongresurako izenemate epea gaur amaituko da: www.gertasport.com (50 euro).

Kongresua atal bitan banatu dute: goizez, eskola teorikoak Durangoko Gran Hotelean, eta, arratsaldean, eskola praktikoak Iurretako Larrakozelaian.

Goizean, Jon Pascuak, Bixen Calzonek eta José Carrascosak eskainiko dituzte hitzaldiak. Pascua atezainen entrenatzaile da, eta Carrascosa kirol psikologoa da; aurtun Olimpiako taldean jardun du. Calzon errealeko talde teknikoko kidea da.

Arratsaldean, Miguel Angel Lotina entrenatzaileak, Espainiako futbol federazioko aholkulari metodologikoa den Gari Fullaondok eta Iñaki Alonso entrenatzaileak saio praktikoak eskainiko dituzte.

ZAPATUKO EGITARUA

- 09:30-11:00:

Jon Pascua: *Atezainen entrenatzailearen lana eta beren erantzukizunak*

- 11:00-12:00:

Bixen Calzón: *GPSaren erabilera futbolean*

- 12:15-14:15:

José Carrascosa: *Nola garatu portaera positiboa entrenatzaile batek*

